

telebista ♦ irratia

Aurkene Iturrioz da jaiegunetako eguraldiaren aurkezle berria ETBn

Euskarazko zein gaztelaniazko kateetan emanen du eguraldiaren berri

Erredakzioa / Donostia

Asteburu eta jaiegunetan, Euskal Telebistako eguraldiaren tartea aurkezteko ardurua Aurkene Iturrioz kazetariak hartu du atzodanik. Euskarazko zein gaztelaniazko kateetan jardungo du eguraldiaren errepaso eta aurrikuspina eginez, *Gaur egun* eta *Teleberri* informatiboen ostean.

EUSKAL TELEBISTAN lanean daramatzan hamar urteetan egin behar ugaritan jardun du Aurkene Iturriozek —kamera aurrean egindako azken lana Klaudio Landarekin ETB1n joan den udan aurkeztutako *Azken Uda Pasa* izan da—, eta atzodanik asteburu eta jaiegunetan ETBko eguraldiaren tar-teko aurpegi berria da. Gogoz eta, era berean, urduri antzean ekin ei dio ardura berriari Iturriozek: «Beste mundu bat da. Orainsu arte ez naiz askorik arduratu gai honetaz, eguraldia zein izango zen jakin gabe atera izan bainaiz etxetik. Baina orain, alor honetan lanean hasi naizenez geroztik, gero eta gehiago jakin teko gogoa sartu zait».

Aurkene Iturriozek jakinaraziko die eguraldiaren informazioa ikus-entzuleei,



ETB

Aurkene Iturrioz da ETBko eguraldi tartearen aurkezle berria asteburu eta jaiegunetan.

baina Belen Ezkerra arduratuko da aurreikuspena eta mapak egiteaz. Astelehene-tik ostiralera ETB1n eta ETB2n eguraldiaren tartear arduratzen diren Andoni Aizpururen eta Ana Urrutia-ren ildo berari jarraituko diotela aurreratu du Iturriozek. «Hala ere, aisialdirako planak egiteko ikus-entzule-arentzat baliagarri izan dai-

tezkeen informazio zehatzak sartuz joatea baliteke. Izan ere, kontuan hartzekoa baita zenbaiterainoko interesa pizten duen tarte honek asteburuetan», gehitu du.

Kamera atzean zein aurrean

Hamar urteko ibilbidean egiteko asko izan ditu Iturrioz-

zek ETBn, kamera atzean zein aurrean: gaurkotasu-nezko erreportaiak egin ditu, informatiboak aurkeztu eta koordinatu, *Bertatik bertara* saioko lan taldeko kide izan da, *Bakarrik* saioko koordina-tzaile, *Azken Uda Pasa* aurkeztu du... Orain, berriz, isobara, antizikloi, ekaitz, fronte hotz eta bestelakoak izango ditu hizpide.

‘Bertatik bertara’ Durangoko Azokan izango da gaur

■ *Euskal liburu eta disko azokatik bertatik eskainiko dute gaurko saioa, zuzenean*

Erredakzioa / Donostia

BIHAR izango da Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen 34. Azokaren azken eguna. Eta amaitu aurretik, ETB1eko *Bertatik bertara* saioko kideek Durangora joan nahi izan dute azokaren berri emateko. Hala, Andoni Aizpuruk gidatutako saioa Durangotik zuzenean emanen dute gaur, 21:00etan.

Harkaitz Cano idazlea —*Pasaia Blues* eleberria kaleratu berri du— eta Igor Elortza bertsolaria —*Margolana* lehen liburua argitaratu du— elkarrizketatuko ditu Aizpuruk, lan horien xehetasunak ezagutzeko asmoz. Halaber, Mikel Urdangarin eta Rogelio Botanz euskal kantariak emanaldi bana eskainiko dute saioan.



EDURNE KOCH

Bihar da Durangoko Liburu eta Disko Azokaren azken eguna.

laburrean

Mugarik Gabeko Haurtzaroa taldeko kide bat ‘Sorginen laratza’-n

Amaia Bergara Mugarik Gabeko Haurtzaroa taldeko kidea elkarrizketatuko du gaur gauean Xabier Euzkitzek ETB1eko *Sorginen laratza* saioan. Gobernu kanpoko erakunde horren egiteko jardungo dute. Futbolari eskaini solas tarteetan, berriz, iragan den jardunaldiaz gain, euskal selekzioa ere hizpide izango dute. Durangoko Azokara ere joanen dira saioko lan taldekoek. Musikaren atalean, Madrilgo Lola taldea izango da.

Javier Madrazo ‘El Punto’ saioan

Javier Madrazo EAEko IU-EBko idazkari nagusia elkarrizketatuko dute gaur, goizeko 09:30ean, ETB2ko *El Punto* saioan. Juan Luis Bikuñak zuzentzen duen saio horretan, batik bat ETAre su-etenaren amaierak eragindako egoeraz galdegingo diote Madrazori. IU-EBk Lizarra-Garaziko Akordioan jarraituko duenetz ere izango dute hizpide.

‘Ikuskatzailea’ antzerki lana Arte katean

Arte telebista katean, arratsoko 20:45etik aurrera, *Ikuskatzailea* antzezlanak emango dute gaur. Nikolai Gogol idazlearen komedia bat da, eta Denis Podalydes eta Claire Vernet dira antzezle nagusiak. Bertan, San Petersburgoko merkataria xume baten bizipenak kontatzen dira, zeina bere modu onengatik tsarraren ordezkariak saritu egingen duten.

BSkyB kate britainiarra telebista alemaniar baten %24ren jabe

Satelite bidezko BSKyB telebista britainiarra aspaldian zebilen Alemaniako merkatu zabalean sartu nahian. Hala, KirchPay TV ordaindu beharreko katearen %24ren jabe egin da 1.480 milioi dolarren truke. KirchPay TV ordaindu beharreko telebista kate nagusia da Alemanian, bi milioi harpidedun dituela.